

# Lehen Hezkuntza: ingeles espezialista

Larramendi Ikastolako Kontratazio Batzordeak Lehen Hezkuntzan **INGELESA** emateko eta tutorea izateko irakasle baten kontratazioa egin behar du.

## Eskaintzen da:

- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ikastolen Lan Hitzarmena.
- Eszedentzia bat ordezkatzeko behin behineko lan kontratua.
- Epea: 2026ko irailaren 1etik 2027ko abuztuaren 31 bitartean.
- Jornada osoan.
- Lanpostua: Lehen Hezkuntzan tutorea eta ingeles irakaslea.

## Gutxieneko eskakizunak:

- Lehen Hezkuntzan gradua atzerriko hizkuntzan espezialitatea aipamenarekin.
- Euskara: C1 edo baliokideak.
- LH Atzerriko hizkuntza: Ingelesean gutxienez C1 titulazioa edo baliokidea.

## Kontutan hartuko da:

- EKI proiektuaren ezagutza maila.
- Ikaskuntza kooperatiboaren ezagupen maila.
- Lan-taldean aritzeko gaitasuna.
- Ikastolen Elkarteko proiektuen ezagupen maila.
- Ikastola mugimendurekin harremana.

Hautagaiek CV eta bertan aipatzen diren baremazorako agiriak aurkeztu beharko dituzue [ikastolako web orrialdearen](#) bitartez. Epea: 2026ko ekainaren 9tik ekainaren 16ra arte (biak barne).

Lan elkarrizketak: ekainaren 22-26 bitartean. Lanean hasi, irailaren 1ean.